

BALIO PROPOSAMENA

Bakarrik bizi eta bakarrik dauden adineko pertsona kopurua geroz eta altuagoa da. Beraien kabuz eguneko lanak egiteko ia zailtasunik ez dituzte baina, asko bakarrik eta isolatuta sentitzen dira. Bakardade horrek tristura eragiten die eta triste bizitzea ez da osasuntsua gizakiarentzako. Antzemandako arazo hau, 2030 Agendako hirugarren helburuarekin lotzen dugu; osasuna eta ongizatea. Helburu honek, guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea bilatzen du. Arazo hau geroz eta ohikoagoa bihurtzen ari da gure gizartean, geroz eta adineko pertsona gehiago dagoelako. Ondorioz, pertsona talde oso handi bati eragiten eta eragingo dio. 263.000 adineko pertsona dira Euskadin bakarrik bizi direnak eta kopuru horrek gora egingo du.

Aipatutako arazoari konponbidea emateko app bat sortuko dugu. Bakarrik bizi diren adin nagusiko pertsonak eta adin nagusien etxeetan daudenentzako zuzenduta egongo litzateke, egunerokotasunean beste pertsona batzuekin egoteko eta bakardade hori gutxitzeko. Aplikazioan erregistratzeko momentuan zerrenda batean agertzen diren aukeren artean nahi beste aukeratu ahalko dira; loregintza, sukaldaritza, museoak, arrantza, ehiza... Aplikazioak zure inguruan zuk aukeratutako aukeren plan edo ekitaldien berri emango dizu. Horrela, bertan parte hartzean jendez inguratuta egongo zara, bakartasun sentimendua atzean utziz. Aldi berean, zure inguru berdineko jendea denez, beraiekin gelditzeko aukera izango duzu, lagunartean denbora pasaz eta zurekiko ondo sentitzen. Ekitaldi bakoitzak prezio ezberdin bat izango du, ekitaldiaren arabera.

Gazteentzako aplikazio asko daude, ez ordea nagusiei zuzendutakoak. Ondorioz, oraingoz ez dago gure aplikazioaren antzekoa den beste bat. Orain aipatu bezala ez dago beste aplikaziorik gurearen helburu berbera duena. Nagusien egoitzek egoliarrei bertan egiteko ekintzak eskeintzen dituzte, baina gureak barruko zein kanpoko ekintzak izango dira.

Beraz, gure aplikazioak nagusiek lagunak eta gustuko ekintzak eta jarduerak egiteko balioko du. Horrez gain, aplikazioaren bitartez beste erabiltzaile batzuekin komunikatu ahal izango da, egunerokotasunean beraien artean planak egiteko.

